


EGUZKIA



Eguzkia eta Izarbelak

Asierako kizi edo atomo-moltzo ikaragarria milla zati egin zanean (bin-ban) zatitxu bat gure eguzkia izan zan eta au be zatitu egin zan izarbelak sotzeko eta oneik satellite diran iretargiaren antzekoak sortzeko zatiak galdu ebezan.

Orain eguzkia aztertuko dogu.

Beste izar batzuren antzekoak da, baiña gutzat auxe bakarrik da il edo bizikoa, beroa, argia eta bizia emoten dauskuzalako. Orregaitik batzuk jainkotzat artu dabe baiña Jainkoa "gorago" dago.

Eta ez da eguzkiaren indar gutzia gugana etorten, guk amar millatik bat altzen dogu bere indarretik, beste gutzia bidean galtzen da. Eta alan bear be,

bero geiagok erre egingo geundukez eta otz geiagok be bizia kendu.

Eguzkia Santio-Bidea deretxon galaksiaren erditik 25000 arturtera dago eta bere ardatzari bira emoten dauto, (rotación), 200 milloi urtean.

Izar gutzien artean txikienetarikoa da baiña lurra baiño milloi bat bider aundiagoa.

Ludiak lasko 30 erakar-idar (atracción) dauko: 60k. 'k gizon batek eguzkiaren gaiñean tone biko pisua eukiko leuke eta gizon orrek iretargiaren daiñean 10 k. Baiño ez leukez eukiko.

Izar-izti zaleak egunero dabiltz lanabes aundien bidez eguzkia aztertzen eta une dizdiratsuak (arroz.aleak) ikusten dabez eguzki-barruan, kontau aziñeko beste. Ale orrek aundiak dira, izan, Arizona laterriaren bestekoa bakoitxta.

Arroz-ale orrein bitarte baten illun-uneak dagoz, bakoitxa 60 000 km'koak, lur osoaren lako bost.

Eguzkiaren barruan milloika graduko beroa dago eta gaiñean 6 000 gradukoa.

Bero aundi ori idrojenozko kiziak sortzen dabe eta eliozko kizi biurtuta geratzen dira.

Ludian dagozan meatz guztiak dagoz eguzkian, baiña geiena idrojenoa ta elioa da.

Eguzkiaren gaiñeari fotosfera deritxo eta barruari kromosfera. Su jausi aundiak estaltzen dabe kromosfera eta jausi orrek 700 000 km'ra botaten dabe sua. Emendik iretargira lako bidea da ori.

Eguzkiak illun-aldiak, eklipseak, dauz, iretargia bitartean dala gure begietatik kendua izaten danean. Batzutan dana illuntzen da, beste batzutan zati bat edo erdian obo bat. Ez dira batera ikusten lurralde guztietan, gaiñera laburrak dira illargiak bere bidean minutu 50 km. Egiten ditualako.

Kaldeatarrak K.a'ko 2 000n. urtean, gaur ain ezaguna eta gudaz josia dan Bagdad'en asmau eben eklipseak noz gertatuko ziran: 18 urte eta 11 eguneko bitartea.

OLAZAR'tar Martin'ek eratua.

"MENDIKO BASOAK ETA BARRUTIAK EZ DOZUZ ERREKO"
Taoismoaren 67n.agindua.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!